

AIARALDEA *hemen*



AIARALDEA JAietan
**Otxomaio, San Jose eta
Aiarako jaiei buruzko
gehigarri berezia barruan.**

SAYDI LUBANZADIO:
**Lola Indigo talde
arrakastatsuko kidea da
dantzari laudioarra 12 or.**



Geroz eta pieza gutxiago Aiaraldeko industrian



OTXOMAIO 2019

maiatzaren 3tik 12ra



Eskupilota partidak **Gastronomia lehiaketak** Kale ikuskizunak
Aurreku eta fandango lehiaketa **GBH** Berbenak **Hesian**
Kantu poteoak **Pirritx, Porrotx eta Marimotots** +info : urduna.com

herriz herri

Laudio

Laudioko tren geltokiko obrak aurten esleituko dituzte eta Aretako tunela erabilgarri dago

Testua
Aitor Aspuru Saez

Julian Padierna Renfeko EAEko gerentearekin bildu ziren Lau-dioko Udala. Enpresa publikoa-ren arduradunak tokiko erakun-deari iragarri zion 2019ko bigarren seihilekoan esleituko dituztela herriguneko tren geltokiko obrak. Lan horiek, bereziki, irisgarritasunean izango dute eragina. Alde batetik, igogailua instalatuko dute geltokira sartzeko. Bestetik, makinak dauden eremua ere egokituko dute eta, azkenik, nasetan bi ardatz izango dituzte: altuera igotzea unitate berrietara moldatzeko eta babeslekuak eraikitzea.

Bestalde, Aretako geltokian premiazko lanak abiatu zituzten duela zenbait hilabete. Izan



Aretako geltokiko pasabidea erabilgarri dago jada. Aiaraldea.eus

ere, 2016an emakume gazte bat hil zen, trenak harrapatuta.

Horrelakorik ez errepikatze-ko, tunela eraiki dute bertan eta

erabiltzeko aukera dago jadanik. Gainera, igogailuak jarri eta nasen altuera igo dute, besteak beste.

Indarkeria matxistaren kontrako murala egingo du Irantzu Lekuek



Irantzu Lekue artistak hainbat mural egin ditu dagoeneko. Iralkue.com

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudioko Udalak indarkeria matxistaren aurkako mural bat sustatuko du herritarren laguntzarekin. Goiko plaza 22. helbidean (autobide azpian, hain zuzen) dagoen horman margotuko dute indarkeria matxistaren kontrako murala. 15x4,5 metroko zabaleradun espazioan jasoko den irudia partaidetzan oinarrituta sortuko dute.

Berez, prozesua Irantzu Lekue

artistak gidatuko du, eta apirilaren 9an eta 16an bilera irekiak egingo dituzte 19:00etan Kultura Etxean lana diseinatzeko. Horietan parte hartzeko aurretik izena eman beharko da Berdintasun Zerbitzuan.

Maiatzean egingo dute

Maiatzean ekingo diote margotzeari eta herritarrek aukera izango dute laguntzeko. Zehazki, 10:30etik 12:30ak arte eta 17:30etik 19:30ak arte marraztuko dute.

Antzokiaren proiektuaren esleipena gelditu behar izan dute

Altzarrateko Antzokiaren exekuzio proiektuaren esleipena gelditu behar izan dute, lehiaketako parte hartzaileetako batek kexa aurkeztu duelako. Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (OARC) tramitera onartu du erreklamazioa, eta maiatza amaierara arteko epea du kexa plazaratu duenari arrazoiak eman edo ez erabakitzeko. Ordura arte geldituko da esleipen prozesua. Epaimahaiak lehiaketatik kanpo utzizuen "Geoda" izeneko proiektua, proiektu horren egileek posta elektronikoz bidali zutelako dokumentazioa entregatu zutenaren jakinarazpena, lehiaketaren oinarrietan hori burofax bidez egin behar zela zehaztuta zegoen arren. Horregatik jarri dute egileek errekurtsua.

"Oso ohikoak dira horrelako errekurtsuak mota honetako lehiaketetan", azaldu du Jon Ander Altubek. Alkateordeak nabarmendu du antzokiaren egitasmoak aurrera jarraituko dela eta honakoa "etenalditxikibat" baino ez dela.

Aiara

Iaztik %6.1 hazi da Aiara udal aurrekontua, 2.3 milioi euro izango ditu udalak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Aiara Udalak 2019ko aurrekontuak onartu ditu. EAJ eta Aiara Batuz alderdiek alde bozkatu zuten, eta EH Bilduk aurka. 2.365.289€ izango ditu Aiara egitasmoak aurrera ateratzeko, iaz baino %6.1 gehiago.

Gobernu taldeak igorritako prentsa oharrean ongizatea sustatzeko inbertsioak nabarmendu dituzte, besteak beste. Bizi zaitez bizi izango da programa horietako bat. Horrez gain, ikastaro eta tailerrak eskaintzeko 41.000€ erabiliko dituzte, euskara sustatzeko 22.200€, eta berdintasuna bultzatzeko 8.000€.

Proiektu berriak

Aiara Gaztelekua izango da aurtengo proiektu izarretako bat, 11.000€ bideratuko baitira kudeaketara, eta 1.500€ be-
rau hornitzera.

Bestalde, 57.500€ gorde dituzte Etxaurren Ikastolako 2 urteko gelako zerbitzua hobetzeko. Batzar Administrazio boei dago kienez, berriz, 230.000€ edukiko dituzte. Horrekin batera, argiteria publikoa, bideen atonketa eta bestelako beharrei erantzuteko erabiltzen diren

80.000€ partida gehitu behar zaio. Obren alorrean, Arespalditzako osasun zentroko aparkalekuaren berriketa izango da nobedadeetako bat, udal igerilekuetako plaza eremua estaltzearekin batera.

Bestalde, honako ekimenak lagunduko dira diruz kultura eta historia ondareak ezagutarazteko: ondare historikoaren zabalpena (2.000€), Babio-ko indusketa (10.000€), Euskadiko bolo txapelketa Kexaan jokatzeke diru-laguntza (3.500€), oinezkoen bide sarea (5.000€) eta udal ibilgailuaren aldaketa (11.000€).

EH Bilduren arrazoiak

EH Bilduk hainbat arrazoi eman ditu aurkako botoa argudiatzeko. "Beti aurkeztu ditugu emendakinak, baina udalak bi gauza egin ditu gure ideiekin: baiezkoa eman eta gero ez gauzatu edo bere modura garatu", azaldu du Josu Artetxe zinegotziak. Malato zuhaitzeko ekitaldia jarri du horren adibide gisa. "Proposamena gurea zen, baina udalak jeltzaleen ekitaldi bihurtu zuen". Horrez gain, aurrekontuak "oso apalak" direla gaineratu du EH Bilduko kideak, "ez dago proiekturik ez eta gauza berriak egiteko ausardiarik ere".

Urduña

Foru plazako lur zorua konpontzeari ekin diote

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Urduñako Udalak zenbait obra abiatu ditu azken egunean. Aurki hasi dituzte Foru Plazako konpontzeko lanak. "Trafikoa dela eta, apurtuta zeuden lauzak konpontzea izango da horien helburua. Hurrengo bi asteetan lanean arituko dira erresistentzia handiko material berritzaileak instalatzeko". Dena den, fro-

ga pilotua izango da, aurreratu dutenez: okerren dagoen gunetik hasi dira, eta "emaitza ikusita aztertuko da plaza osoan egitearen aukera". Bien bitartean, ordea, ibilgailuentzat trafikoa moztuta egongo da Foru plazan.

Bestalde, Harategi kalean murala egiten ari da Aaron Diego Escauriaza. Guztira, 200 metro koadroko neurria izango du, eta Urduñako hiru argazki irudikatuko ditu.

Artziniega

Udalak 2019ko aurrekontua onartu du eta Aiaraldea hedabidea diruz lagunduko du berriro

Testua

Aitor Aspuru Saez

Artziniegako udalbatzak 2.275.291,78 euroko aurrekontua onartu du 2019ko ekitaldirako. Udal Gobernu Taldearen babesa izan du proposamenak eta EH Bilduren abstentzioa. PPK, ordea, aurka egin du, besteak beste, Aiaraldea hedabidea diruz lagunduko duelako tokiko erakundeak.

Udalak adierazi du zerbitzu sozialetan ahalegina egingo duela itxaron zerrendekin bukatzeko, bitarteko gehiago ordainduta eta etxeetan bisitak eginda.

Lanbidek eta Gazteria Zerbitzuak, ASASAMek eta Gure Arteko Amako zein Babio guraso elkarteek ere diru gehiago jasoko dute.

Horrez gain, 481.624,85 euro bideratuko ditu tokiko erakundeak inbertsioetara. Horrekin Garai plazako jokoak handituko dira, kirol guneko hesiak berritu, Zabaia, Otsati eta Mendibeltz kaleak urbanizatzeari ekin, Elaxpeko kulunkak berrituko aldatu, udaletxeko irisgarritasuna bermatu eta bigarren solairua zein komunak egokituko dituzte.

Hori ez ezik, Barratxiko bidearen proiektua erredaktatu, San Roman eta Mendieta bideetan obrak egikaritu, kalistenia parkea instalatu, udal igerilekuetan erreformak gauzatu eta Gordelitzeko hodia jarriko dute. Azkenik, fibrozementuko hoditeria ordezkatuko da eta frontoiko aparkalekua berritu.

Oposizioa

Artziniegako Udalean aritzen diren oposizioko taldeek ez dute bere egin EAJk proposatutako aurrekontua.

EH Bilduren bozeramailea den Joseba Vivancok adierazi du ez dutela oztopatuko abstentzioa baliatuta, baina ziurtatu dute osokritikoak direla 2019ko aurrekontuarekin, iazkoaren jarraipena baita: "kasu batzuetan burokraziak ez du ahalbidetu proiektuek aurrera egitea, baina beste batzuetan EAJren utzikierak zigortu du Artziniega".



Apirilaren 4an egin zuten udalbatza. Aiaraldea.eus

EH Bildu abstenitu egin zen bozketan eta PPK aurkako botoa eman zuen. 481.624,85 euro bideratuko ditu tokiko erakundeak inbertsioetara

Positiboki baloratu du koalizioak Artziniega Museoaren irekiera bermatuko duen ekarpen ekonomikoa, baita Aiaraldea hedabideak lehen jasotzen zuen laguntza berreskuratzea ere. Hala ere, hainbat puntutan kritikoak izan dira EH Bilduko kideak, bereziki, nabarmendu dute gazteen alde gutxi egiten dela udalean.

PPK kontrako botoa eman du. Hasteko, Aiaraldea hedabidea laguntzarekin ados ez dagoe la adierazi du eta gaineratu du hainbat proposamen egin zituela eta EAJk ez dituela asko onartu. Joseba Elejaldek azpimarratu du mendi bideengarriketa beharrezkoa dela eta auzoak erabat ahaztuak daudela.



Arakaldo

Ibaiko zubia konpontzea izango da 2019ko obra nagusia

Testua

Izar Mendiguren Cosgaya

piderearen konponneta Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

Horrez gain, osoko bilkurak bi araudi onartu berri ditu. Lehenbizikoak Ondasun Higiezinengaineko Zerga du ardatz. Hain zuzen, zergaren ordainketarako irizpide soziala ezartzea erabaki dute: "Familia kide kopuruen eta diru-sarreraren arabera laguntza jasotzeko aukera izango dute herritarrek". Horretarako, baina, errola eta errenta agiriak eraman beharko dituzte udaletxera. "Hiri lurren gainbalio tasa ere ezarri dugu, orain arte Arakaldon ez zegoen eta. Zerga soziala izanik araudia egitea ezinbestekoa zen", azaldu du Jabi Asurmendi alkateak.

302.252€ izango ditu Arakaldoko Udalak 2019an erabiltzeko. "Aurrekontuetan inbertsioetarako 34.000€ egongo dira", nabarmendu du Jabi Asurmendi alkateak. Obren artean zubiaren konponketa dago, espaloia berritzekoa, hain zuzen: "Herri Batzar batean hala erabaki zen. Foru Aldundiari zubi berria eskatu genion, proiektua bidali dute, baina luzerako joango da". Horregatik, oinezkoen bidea atontzeari ekingo dio udalak, "argitasun, irisgarritasun eta segurtasun aldetik oinezkoentzat erosoago izateko". Izan ere, erre-



herriz herri

Aiaraldea

ANALISIA

Lapurretak %14 jaitsi dira Aiaraaldean

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Lapurretak behera egin dute Aiaraaldean. Hori ondorioztatu daiteke Audioko Ertzain-etxeko datuak ikusita. Komisariaren arabera, “ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako” 691 arau-hauste jazo ziren Aiaraaldean 2017an. 2018an, aldiz, 593 izan ziren, %14,18 gutxiago.

Hainbat motako delituak barnebiltzen ditu “ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako arau-hausteen” atalak. Ebasketak daude alde batetik: 213 salaketa 2017an eta 186, aldiz, iaz.

Beste aldetik, eraikinetan indarrez sartuta egiten diren lapurretak daude. Mota horretako gertaeren 178 salaketa egin ziren Aiaraaldean 2017an. Lapurreta horietako 47 etxebizitzetan jazo ziren (15 etxeen barruan eta 32 etxeen albo-ko bestelako eraikinetan; etxolak, garajeak eta abar).

Enpresetan 7 lapurreta egin ziren, 60 establezimendu komertzialetan (tabernak eta saltokiak) eta 64 bestelako eraikinetan.

Hurrengo urtean, aldiz, salaketa gutxiago egon ziren: 176 guztira. Etxebizitzetan lapurreta kopuru bera mantendu zen: 47. Establezimendu komertzialetan eginiko lapurretek, aldiz, behera egin zuten nabarmen: 49 jazo ziren, aurreko urtean baino %18,3 gutxiago. Enpresetan eginiko lapurreta kopuruan egon zen igoera: 7 izan ziren 2017an eta 17, berriz, 2018an. Era berean, behera egin zuen “biolentzia edo larderia” baliatua eginiko lapurreten kopuruak: Aiaraaldeko 10 salaketa jaso zituzten Audioko Ertzain-etxean 2017an eta 8, aldiz, iaz.

Motordun ibilgailuen lapurretak, ordea, gora egin zuen: bost izan ziren 2017an eta hamabost 2018an. Iruzurren salaketek, aldiz, nabarmen egin dute behera: 75 izan ziren 2017an eta 28 iaz.

Laudioko datuak
Laudioko datuei soilik erreparatuta, joera antzekoa dela sumatu daiteke: kasu gehienetan behera egin du salaketa kopuruak. Mantendu egin da enpresetan eginiko lapurreten kopurua: bina 2017an eta 2018an.

Datuen atzeko errealitatea
Aitortu behar da, arestian aipatutako zenbakiak lehen aldiz ikusita, zureta lur geratzeko modukoa dela. Nola da posible? Aiaraaldea hedabidean geroz eta sarriago ematen ditu eskualdean (Laudioko erdigunean, batez ere) ematen diren lapurreten berri.

Hemerrotekan begiratu besterik ez dago: mota horretako gertaerei lotutako bost albiste argitaratu zituen hedabideak 2017an. Iaz, aldiz, 16 publikatu zituen, eta aurtun beste bost, urtariletik martxora bitartean. Lapurreten olatu bat zegoela zirudien, eta herritarren artean ere alarma piztua zegoen.

Baina ez. Datuek ez dute zalantza

Aiaraaldeko delinkuentzia-tasa EAEko txikienetakoa da, eta beherantz doa gainera

izpirik uzten: Aiaraaldeko kriminalitate-tasa EAEko txikienetakoa da, eta beherantz doa gainera. 2017an 1.060 arau hauste penal jazo ziren guztira eskualdean (25 delitu 1.000 biztanleko). 2018an, aldiz, 1.000 izan ziren (1.000 biztanleko 23,58).

Zer gertatzen da orduan? Oker daude ertzain-etxeko datuak? Jendeak ez ditu lapurretak salatzen? Ez bata ez bestea. Ondorio bat izan daiteke Aiaraaldea hedabidean ez direla geroz eta albiste gehiago publikatzen geroz eta lapurreta gehiago daudelako, geroz eta lapurreta gehiagoren berri dugoelako baizik.

Berdin gertatzen da beste hedabide batzuetan. Lapurreten gaiari duena baino garrantzi handiago ematea dakar horrek, agian salbuespena dena arau orokorra izango balitz bezala tratatuta. Hedabideetako kideok badugu zer hausnartu hor. Eta berdina gertatzen da baita gure jendartean ere. Herrietako Facebook taldeetatik eta profiletatik begirada bat botatzea nahikoa da horretaz ohartzeko. Amurrioko Udalak abiatutako



Iragan urriaren 9an Audioko gertatutako lapurreta baten irudia. Aiaraaldea.eus

aurrekontu parte hartzaileen azken edizioa ere bada horren adibide. Honako proiektu hau izan zen bozka gehien jaso zuenetako bat: 24 orduko kamerak jartzea segurtasun arazoak dituzten udalerriko puntu estrategikoetan.

Horrelako gauzek 80. hamarkadan Audioko bizi izan zen egoera ekartzen dute gogora, lapurretei aurre egiteko auzokide-patrulak antolatzen zireneko.

Argi dago beste garai bat zela (heroinaren afera pil-pilean zegoen, adibidez, eta horrek bazuen era-

gin zuzena delinkuentzia-tasan). Hala ere, argi dago ez litzatekeela gomendagarria antzeko egoera bat berriz bizitzea, are gehiago horretarako inolako beharrik ez dagoenean (esan bezala, datuek arazoa geroz eta txikiagoa dela erakusten dutelako).

Horregatik, tentuz ibili behar da gai honekin, eta datuei erreparatu. Izan ere, segurtasun faltaren tentsazio puztu eta paranoikoak koktel ezin arriskitsuagoa osatzen du zurrumurru arrazistekin. Gaur egun ematen ari den eskuin mutu-

rraren gorakadarekin are sukoia goa bihurtzen den koktela. Adibidez, Hogar Sozial Madrid talde nazia da segurtasun faltaren afera bere onura politikorako baliatu duen eragileetako bat. Eta nola ez, Santiago Abascal ere erabili du bere armen zaletasunari (nahiz eta zerbitzu militarra ez egin) irtenbidea emateko, balizko segurtasun falta aitzakia hartuta.

Beldurra eta ardura zerbaitek eman behar izatekotan, horrek eman beharko liguke, eta ez geroz eta gutxiago diren lapurretek.

ARAU-URRAKETA MOTA	LAUDIO		ERTZAIN-ETXEA (AIARALDEA)	
	2017	2018	2017	2018
Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurka	287	247	691	593
Ebasketak	97	88	213	186
Lapurretak gauzekiko indarra aplikatuta	77	58	178	176
Etxetan indarrez eginiko lapurretak	21	17	47	47
Etxeen barruan indarrez eginiko lapurretak	3	17	15	43
Etxearen beste espazio batzuetan indarrez eginiko lapurretak	18	-	32	4
Enpresetan indarrez eginiko lapurretak	2	2	7	17
Komertzioetan eta beste espazio itxi batzuetan eginiko lapurretak	28	21	60	49
Beste toki batzuetan eginiko lapurretak	26	18	64	63
Biolentzia edo larderia erabili eginiko lapurretak	1	4	10	8
Kalteak	68	67	188	160
Motordun ibilgailuen lapurreta	1	9	5	15
Iruzurak	38	15	75	28
Ondarearen aurkako bestelako arau-haustek	5	6	22	20

Amurrio

Enpresaren etorkizuna kolokan dagoela salatu dute Valvospain-Ituartekeko langileek



Amurrioko Udaletxearen aurrean egin dute elkarretaratzea.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Elkarretaratzea egin zuten iragan igandean Valvospain-Ituartekeko langileek Amurrioko Juan Urrutia plazan.

Enpresa Batzordeak deitu zuen mobilizazioa, enpresaren etorkizuna kolokan dagoela argudiatuta. "Ez digute ezer zehatza esan. Zuzendaritzak jakinarazi digu diru arazoak dituztela eta akziodunek erabaki behar dutela zer egingo den fabrikarekin", azaldu zuen Aitor Etxebarriak. Batzordeko kideak salatu zuen akziodunak langileez ahaztu dire-

la. "Oso kudeaketa txarra egin dute eta horregatik gaude egoera honetan".

Soldata atzerapenak

Horrez gain, langileek salatu zuten bi urte daramatzatela soldata atzerapenekin. "Ez dugu oraindik martxoko soldata jaso eta otsailekoa aste honetan eman digute. Horregatik, ahalegin berezia egin behar izan dugu langileok hilabete amaierara iristeko".

Momentuz ez dute zehaztu noiz egingo duten hurrengo mobilizazioa, baina Aste Santuaren ostean protestan jarraituko dutela aurreikusi dute.

Giza hezurak topatu dituzte Fraileburun auto baten barruan

Giza hezurak topatu zituzten igande goizean (10:30ak aldera) mendizale batzuek Fraileburu inguruko zonalde harritsu batean.

Ustez aspaldi amildu zen auto baten barruan topatu zituzten arrastoak. Autoak zuhaitz batzuen aurka egin omen zuen talka.

Ertzaintza bertaratu zen tokira eta arrastoak ikertzeari ekin zion. Jakinarazi dutenez, 2013an desagertu zengizonek batenak izan daitezkeen ikertzen ari dira.

"Giveboxak" jarri ditu udala berrerabilera sustatzeko



Karen Mardahl

"GiveBoxak" jarri ditu Amurrioko Udalak herriko hainbat toki publikotan, egoera onean dauden arropen eta bestelako objektuen berrerabilera sustatzeko helburuarekin. Tokiko erakundeak nabarmendu duenez, ekimena aitzindaria da EAEn.

Arrankudiaga-Zollo

Sunrise Medicaletako langileen 13 eguneko grebak fruituak eman ditu

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Sunrise Medicaletako langileek jakinarazi dute duela 2 aste abiatutako greba amaitu dutela. ELA eta LAB sindikatuek sinatu dute akordioa behargin zuzenak %4 gehiago kobratu dezaten 2019an. Bestalde, 2020an eta 2021ean KPIa igoko da soldatetan, 10 langilek kategoria igoera izango dute eta hurrengo 3 urtetan 4 kontratu mugagabe sinatu beharko dira.



Sunrise Medicaletako langileak lortutako emaitzak ospatzen.

ARABAKO JAIAK

2019ko APIRILAREN 28A ETA MAIATZAREN 1A



SAN PRUDENTZIO ETA ESTIBALIZKO ANDRE MARIA

erreportajea

Industria birmoldaketaren ajeak



Martxoan amaieran zabaldu zen LIDLek Laudion duen biltegia Langraiz Okara mugituko duela. Albisteak zeresana sortu duen arren, baditu aurrekariak. Azken urteetan hainbat enpresa itxi dira Aiaraaldean. Datuek argi erakusten dute ematen ari den joera: industriaren pisua geroz eta txikiagoa da, zerbitzuen eskualde batean bihurtzen ari gara.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Martxoaren amaieran zabaldu zen LIDLek Laudion duen biltegia Langraiz Okara mugituko zela. Albisteak zeresana sortu du eskualdean. Laudio alderdi politikoei ere izan dute ahotan LIDLen itxieraren afera. Laudio azken Udala Osoko bilkuran izan dute hizpide gaia, eta hainbat prentsa-ohar eta adierazpen egin dituzte.

PSE-EE izan zen lehena. Juanje Merchanen ustez, deslokalizazioa albiste txarra da udalerriarentzat, “langileentzako, enpleguarentzat zein Laudio gune industrial eta enplegu sortzaile gisa duen irudiarentzat”. Alkategai sozialistaren aburuz, egoerak EH Bilduk arazoei aurre egiteko duen “gaitasun eza” jartzen du agerian. Antzeko hitzak baliatu zituen Ramiro Gonzalezek Radio Llodion eginiko elkarrizketan. Ara-

bako Ahaldun Nagusiaren arabera, Laudio Udala ez da LIDLi lursail handiago bat eskaintzeko gai izan. “Ezgaitasun horren aurrean, Aldundiak lursail bat eskaini zion enpresari Langraiz Okan, Araban geratu dadin”.

EH Bilduren udal gobernua, bere aldetik, gogor kritikatu ditu PSE-EEren zein Gonzalezen hitzak. “Herrien arteko konfrontazioa” sustatzea leporatu zion Iñigo Martinez Cerrillo zinegotziak Ahaldun Nagusiari. “Aldundiak okupatu gabe dauden lursail asko ditu herrialdean, oso erraz eskaini dezake bat”. Dena dela, LIDLek lursail gehiago behar zuela aitzakia bat dela iradoki zuen Jon Ander Altubek. “Laudio biltegia da Estatu Espainiar osoan lan-hitzarmen propioa duen bakarra. Biltegi hori itxiko balitz langileen lan-baldintzak okertu egingo lirake”. Hori da enpresak lantegia “deslokalizatzeko” duen arra-

zoi nagusia, alkateordearen ustez.

Segida luzea

Dena dela, LIDLen biltegiaren itxiera beste pieza bat baino ez litzateke eskualdean industria birmoldaketaren garaitik datorren segida luzean. 1992. urtean itxi zen garai hartan eskualdeko enpresarik handiena zena: Aceros de Llodio. Ordutik hona fabrikak itxierak euri tantak bezala erori dira eskualdean: Acerosentzat zuzenean lan egiten zuten tailer txikiak izan ziren lehenak desagertzen, baina geroago beste hainbat txanda iritsi zen. Azken urteetan hainbat lantegi itxi dira. Hor daude Lipmesa, Norten, Vicalde edota Kiderren adibideak, besteak beste.

Datuek oso argi erakusten dute eman den gainbehera. Eskualdean ekoizten den balio erantsi gordina geroz eta gutxiago dator industria sektoretik. Laudion,

Datuek oso argi erakusten dute eman den gainbehera. Eskualdean ekoizten den balio erantsi gordina geroz eta gutxiago dator industria sektoretik, zerbitzuen mesedetan

adibidez, balio erantsi gordinaren %47,3 zetorren industria eta energiari 1996an. 2016an, aldiz, ehuneko hori %37,7ra jaitsi zen, zerbitzuen (%57,8) sektorean. Gai-nontzeko herrietan ere joera bera sumatu daiteke. Arakaldokoa da kasurik nabarmenenena: 1996an balio erantsi gordinaren %61a zetorren industria eta energiari lotutako enpresetatik. 2016an, aldiz, %8,2 baino ez zetorren sektore horretatik. Urduñan ere jaitsiera deigarria eman da: industriaren presentzia %40,9koa zen 1996an. Hogeitaz beranduago, aldiz, %14,9koa zen.

Datu horiek ondorio argi bat uzten dute mahai gainean: Aiaraaldea eskualde industrial izateari uzten ari dio, zerbitzuen zonalde bat izatera pasatzeko, eta horrek jendartearen ekarriko dituen ondorio guztiak ikusteke daude oraindik.

erreportajea

NORTEN



San Mames berriko harmailak egin zituzten Norten enpresan. Enkargu hori burutu eta gutxira itxi zuten Arakaldon zegoen fabrika, duela bost urte. Orduz geroztik eraikina hutsik egon da, eta lapurreta ugari egon dira bertan. "Gaur egun azpiegitura guztiz birrindua dago", azaldu du Jabi Asurmendik. Arakaldoko alkateak salatu duenez, enpresaren zuzendaritzak hainbat irregulartasun egin ditu azken urteetan: "Hainbat gauza kendu zituzten udalari horretarako obra baimena eskatu gabe, amiantoaren baimenik gabe kendu zuten eta ur-kontsumo handia egin zuten ur-korrantea jada etenda zutenean".

Gauzak hala, tokiko erakundea Jaime Delclauxekin (enpresaren zuzendaria) bildu zen egoera bideratzeko. Iaz Eraikin enpresak erori zuen lurra, baina oraindik ez dute zehaztu zertarako erabiliko duten.

2015ean itxi zuten Laudioko Industriagunean zegoen fabrika. 1966. urtean sortu zuten fabrika. Presio handiko ontziak egiten zituen enpresa handientzat (Campsa edo Petro-nor, besteak beste).

Itxi baino bost urte lehenago hasi ziren arazoak enpresan. Hainbat enplegu-erregulazio espediente ezarri zituzten 2009. urtetik aurrera. Itxi zutenean 30 langile inguru zeuzkan enpresak, baina 50 baino gehiago izan zituen garai oparoa-goetan.

Gaur egun fabrika zegoen eraikina hutsik dago.

VICALDE



NEURRIRA EGINDAKO JAIETARAKO PRODUKTUAK

KAMISETAK, ZAPIAK, ...
BEHAR DUZUNA ESKATU
ETA LORTUKO DUGU ///

SERIGRAFIA, BORDATUA,
BINILOA, INPRESIO DIGITALA



G! Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

erreportajea

KIDER



Kiderrek hiru fabrika zituen: Amurriion lehena, Murgan bigarrena eta Barakaldon hirugarrena. 2014. urtean hiru lantegiak itxi zituzten, 388 langile langabeziara eramanda.

Handik gutxira, baina, inbertsore bat prest agertu zen Amurrioko fabrika (Kime izenekoa) berriz irekitzeko, 50 langilerekin. 6.250.000 euro eskaini zituen horretarako, eta Kider Store Solutions izena jarri zion egitasmoari.

Hala egin zuen, eta denborak aurrera egin ahala langile gehiago kontratatu zituen. Gauzak hala, bertan lehen lan egiten zuen behar-ginetako askok lanpostua eskuratu zuten, baina ez guztiek.

Gainera, lan-baldintzak ez ziren lehen zituztenak bezalakakoak. Asko kaskartu ziren, soldatak batez ere.

Gaur egun, Murgako lantegiak (ezkerreko argazkikoa) hutsik jarraitzen du.

Urduñako La Paul auzoan zegoen Traner (Transformados Del Nervion SA) enpresaren lantegia. Enbutizio bidezko piezak ekoizten zituzten bertan.

Duela ia 20 urte itxi zuten enpresa, eta orduz geroztik itxita egon da. Gauzak hala, Urduñako Udalak "Lurra berreskuratzeko eskaera" egin dio Eusko Jaurlaritzari. Ea herrian burutu zen prozedura baliatu nahi dute. Herri horretan bi urte baliatu zituzten industriagunea bertako udalaren esku jartzeko.



ELKARTEGIA



2006. urtean ireki zuten Urduñako Elkartegia. Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko Azpiegiturak sozietate publikoak eraiki zuen industriagunea.

Gaur egun, baina, industriagunekeko pabilioi bakarra dago okupatuta, gainontzekoak hutsik dauden bitartean. 4-5 eskaera jasotzen ditu Aldundiak urteko, baina gero ez dira errealitate bilakatzen. Hala ere, Urduñako enpresa hazitegiko proiektu bat Elkartegiko bulegoetara mugituko da laster.

Iragan otsailean bilera egin zuten Urduñako Udaleko, Aldundiko eta Elkartegiko ordezkariak, industriagunearen okupazio-tasa ia hutsalaren arazoaz mintzatzeko. Bertako pabilioi edo bulego bat alokatu edo erosteko prest agertzen diren enpresen eskaerei arreta handiagoarekin jaramon egiteko konpromisoa hartu zuten guztiek.

erreportajea

Langraiz Okako "Los Llanos" poligonora mugituko da LIDLek Laudion duen instalazioa. Laudion espazio nahikorik ez duela argudiatu du supermerkatu kateak herritik joatea justifikatzeko.

Arabako Foru Aldundiaren Garpén Agentziarena den 111.687 metro karratuko gune batera mugituko da multinazionala, 7,25 milioi euro ordainduta. Horretarako gunea urbanizatu behar dute lehenbizi. Ondoren, 34 milioi euroko inbertsioa egiteko asmoa du LIDLek, 36.500 metro karratuko azpiegitura sortzeko.

Gauzak hala, oraindik denbora falta da deslokalizazioa gauzatzeko, baina zuzendaritzaren erabakia irmoa omen da. Egun 200 behargin daude Laudion. Langraiz Okara lan egitera joan nahiko luketenek lanpostua mantendu ahalko lukete. Gainontzekoen etorkizuna, ordea, kolokan egongo litzateke.



JUANJO BASTERRA

KAZETARIA

Industria birmoldaketaren odol jarioak aurrera darrai

Aiaraldeak ezin du aurrera begiratu atzean utzi duena ulertu gabe. Jarduera industrialak kolpez erortzea lortu zuen birmoldaketa industrialak. Aceros de Llodioaren itxierak industriaren suntsipenaren bidea ireki zuen. %25eko galera hori mantentzen da. Gero moldaketak etorri ziren beste fabrika batzuetan.

Zer da gertatu dena azken hiru hamarkadetan? Erabaki politikoek eragin zuten enplegua eta etorkizuna eskaini zituen zonalde honek zuen dirdira itzaltzea. Alde batetik, enpresen kontrola hartu zutenek ez zutelako horiek berrizatzeko ahalginik egin eta, bestetik, hainbat gobernu izan zirelako eredu horrekin amaitzea erabaki zutenak.

Bai, iritsi ziren tailerrak industrialdera, Arzako poligonora... baina ez dute irauten. Ez da jarduera industrialak sustatzen zonalde horretan eta are okerragoa dena: industria handiek beste fabrika batzuk irekitzen dituzte, gertu edo urrun dauden beste enpresa batzuk erosten dituzte eta, kontrara, ez dute hemen jarduerarik sustatzen. Prekarietate eta langabezia tasa handiak dakartza horrek. Bere etorkizun industrialak hari batetik zintzilik dagoela ikusten ari da Aiaraldea. Birmoldaketa industrialari odola dario oraindik, gobernuak eta enpresariak ez daudelako etorkizunagatik kezkatuta. 180 graduko biraketa bat egin behar da.

LIPMESA



2013an itxi zituen betiko ateak Lipmesa enpresak. Aretako fabrikak 1943. urtean ireki zituen ateak, eta eskualdeko fabrika garrantzitsuenetako bat bilakatu zen, 140 pertsoneri ematen baitzuten lana.

Enplegua-erregulatzeko espedienteak aplikatu zuten lehenbizi langileen artean. Ondoren hartzekodunen lehiaketan sartu zen enpresa, eta handik gutxira itxi zuten. Langileek soldata atzerapen ugari pairatu zituzten itxieraren aurreko hilabeteetan. Azkenean, FOGASaren bitartez kobratu zuten zor zitzaien dirua. Sinatutako akordioaren arabera, beharginen kolektiboak milioi bat euro jasoko luke Lipmesaren makinak, eraikina eta lurra salduko balira.

Baina eraikinak hutsik eman ditu azken bost urteak. Gainera, 2017ko azaroan bi sute egon ziren fabrian.

arrate
gestoria • aholkularitza • aseguruak

Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

Utzi zure errenta 18 profesionalen eskuetan

20 urte baino gehiagoko esperientzia
Profesional adituak eta arituak
Zure beharrei egokitutako prezioak
Errenta-aitorpenen emaitzarik onena bermatzen dizugu

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

1945. urtetik Laudion zurekin

Mediku zentroa RPS: 314/18

Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00





agenda

2019/04/16
2019/05/01

Danborradak apurtuko du Aste Santuko lasaitasuna



Aste Santua ate joka dugu. Horregatik, datozen egunetan nabarmen murriztuko da eskualdeko agenda deialdi kopurua. Datorren asteburuan, adibidez, ez da zinema proiektziorik egongo Aiaraldeko aretoetan.

Umeentzako ekintzak nagusi
Gauzak hala, data hauei lotutako ekitaldi erlijiosoek hartutako dute protagonismo gehiena. Baina egongo da bestelako jardueraz gozatzeko aukera ere. Umeentzako ekintzak izango dira nagusi. Amurrioko San Anton plazan, adibidez, “Jalgi Hadi” egitasmoa egongo da hiru

laren 23tik 26ra. Haurrentzako makina bat tailer eta jolas burutuko dituzte bertan, 17:00etatik 19:00etara: burbuila erraldoiak egiteko ikastaroa, yoga tailerra, egurrezko golfa eta autotxoke ekologikoak, besteak beste.

Jaiak
Apirileko azken asteburuan, aldez, jai giroa nabarmen hartutako da eskualdean, Amurrioko San Jose auzoko eta Aiarako jaiak hasiko direlako. Ospakizun horien gaineko informazio gehiago izateko ikusi hamabosetkari honetan dagoen gehigatuzte, 19:00etan.

Danborrada
Hilabete amaierarekin bate-ra beste ospakizun bat iritsiko da eskualdeko herri arabarretara: San Prudentzio. Danborra tsek eta barraskilo dastaketek hartuko dituzte kaleak apirilaren 27an.

Oraindik ez dituzte egitarau guztiak plazaratu, baina kalejirak arratsaldean izango direla aurreikusi daiteke. Rakatapla-ko kideak, aldez, gaez aterako dira Laudiotik. Motorrak berotzeari ekin diote: entseguak antolatutako dituzte apirilaren 23 eta 25rako. Aldai plazan egongo dituzte, 19:00etan.

Lau egunez hizatuko dira Arrastariako

jaiak, apirilaren
19tik 23ra



Arrastariako jaiak ate joka daude, datorren asteburuan ospatuko baitira. Lau eguneko egitarau atondo dute herriko bizilagunek. Apirilaren 19an (ostirala) izango da txupinazoa, 20:00etan. Ordubete beranduago hasiko da Periren emanaldia. Larunbatean, aldez, Eusko Label txahalkiaren dastaketa egongo dute, 14:00etan. Pinitxo bakoitzak euro bat baliokidua eta biltzen duten diru gutxiataxia-telangiektastaiagaitasuna duten pertsonen AEFAT elkarteari emango diote. Briska txapelketarekin eta Joselu Anayaken erromeriarekin amaituko da eguna.

Igandean haur-parkea, txokolatada eta disko-festa egongo dira 18:00etatik aurrera. Burukatzeko, asteartean (hilak 23) meza eta herri luntxa egingo dituzte.

MUSIKA

04.26 Ostirala
17:30 AMURRIO
BURUBIO KULTURGUNEAREN III. URTEURRENA
Sarrera: 13 euro (aurretik 10 euro eta bazkideek 3)
Burubio Kultur Elkartea

UMEENTZAKO EKINTZAK

04.23 Astearte
17:00-19:00 AMURRIO
JOLAS ERRALDOIAK
San Anton plaza

04.24 Asteazkena
17:00-19:00 AMURRIO
XABOI-BURBUILEN TAILERRA BURBUILA ERRALDOIAK EGITEKO
San Anton plaza

04.24 Asteazkena
17:00 / 18:00 AMURRIO
YOGA TAILERRA
17:00etik 18:00era 3 eta 6 urte bitartekoentzat eta 18:00etatik 19:00etara 7 eta 12 urte bitartekoentzat
San Anton plaza

04.25 Osteguna
17:00-19:00 AMURRIO
EGURREZKO GOLF TXIKIA ETA PATINAJE TAILERRA
San Anton plaza

04.26 Ostirala
17:00-19:00 AMURRIO
AUTOKOTXE EKOLOGIKOAK
San Anton plaza

TAILERRAK

04.17 Asteazkena
17:30 AUDIO
IRAKURLEA KLUBA “King kong teoria”
Udal Liburutegia

04.23 Astearte
19:15 AMURRIO
X. LITERATURA TOPAKETA
La Casona

04.27 Larumbata
AMURRIO
SAN PRUDENTZIO 19:30 // Desfile-danborrada 20:00 // Danborrada 20:15 // Barraskilo jana
La Casona



04.28 Igandea
19:00-21:00 AMURRIO
DANTZALDIA
Nagusien Etxea

04.26 Ostirala
18:30 URDUÑA
LA LLAVE LIBURUAREN AURKEZPENA
Alondegia

04.27 Larumbata
10:00-15:00 URDUÑA
AGROEKOLOGIA FERIA
Foru plaza

04.28 Igandea
10:30-14:00 URDUÑA
EHIZA ZAPOREAK
Okela dastatzeko aukera egongo da
Foru plaza

INFO +
aiaraldea.eus

APIRILA

20 20:00



Agroekologia feria Urduñan

80 hamarkadako doinuak

Kultura

Saydi Lubanzadio dantzari laudioarra Lola Indigo talde arrakastatsuko kidea da eta Bilboko Santana 27 aretoan eskainiko du emanaldia apirilaren 26an.

Fama, a bailar saiotik aterazenetik, bere ibilbide profesionala meteorikoa izan da eta ez du ia atsedena hartzeko aukera izan.

“Oraindik ez dut prozesatu Lola Indigo taldean egotea zer den, lanean gaude etengabe”



Testua

Aitor Aspuru Saez

Saydi Lubanzadio iaz egin zen ospetsua *Fama, a bailar* telebista saioan parte hartu zuelako, baina horren ostean lanean aritu da atsedetik hartu gabe.

Momentuz, bere proiekturik ikusgarriena da Lola Indigo, Bilbon emanaldia eskainiko du taldeak apirilaren 26an, hiriko Santana 27 aretoan.

Lola Indigo

Miriam Doblas *Operación Triunfo* telebista saioko lehiakidea da Lola Indigo taldearen burua eta abeslaria eta, jadanik, oso ezaguna egin da *Ya no quiero ná* abestiaren ondorioz.

Kanta horrekin sartu zen Saydi Lubanzadio taldean: "Ia kasualitatez izan zen. Oporretan nengoen *Fama, a bailar* lehiaketako lagunekin eta Mimik deitu zidan (Miriamek). Dantzariak behar zituen bideoa grabatzeko. Dantza bideoz bidali zidan eta horrela ikasi behar izan nuen. Gero grabaketan konturatu nintzen alderantziz ikasi nuela. Hala ere, gogorlanegindagrabatugenuen".

Une horretan ez zekien taldeko kidea izango zela: "Mimik soilik galdetu zidan data batzuk libre ote nituen eta baiezkoa eman nion. Gero azaldu zidaten Lola Indigo proiektuak musika eta dantzari garrantzi handia ematen diela eta taldeko kidea izango nintzela".

Taldeak bere bizitza irauli du: "Hasieran nire asmoa zen Londresera joatea lan bila eta ikastera. Orain, ordea, Madrilén bizi naiz Lola Indigoren entseguetan parte hartzeko eta bestelako lanak ere egiteko".

Izan ere, artista gehiagorekin dantzatu du Saydi Lubanzadiok, besteak beste, Manuel Carrascorekin.

Mala Rodríguezekin

Lola Indigo egitasmora itzulita, uztailean sareratu zuen bere



Oso gaztea izan arren, ibilbide oparoa egin du Saydi Lubanzadiok dantzari gisa -irudian bigarrena da eskumatik hasita-. Lola Indigo

lehen abestia eta horri esker hainbat zuzeneko eskaini dituzte. "Hasieran abesti horrekin agertzen ginen, gero ordubeteko ikuskizuna osatu genuen Rihanna eta Beyoncé bezalako artisten kanteekin. Ondoren, abesti propioak sortu ahala, horrekin bete dugu saioa", azaldu du laudioarrak.

Bere bigarren bideoa Mala Rodríguez abeslari andaluziarrekin grabatu eta abenduan zabaldu zuten.

Denaden, arrakastalortu badute ere, Lola Indigo proiektuak eskatzen dituen ahaleginak ez dira xamurrak, Saydik azaldu duenez: "Gure entsegu osoak 6

ordu irauten ditu. Nik egunero ikasten edo lan egiten dut. Ez badut entsegurik, dantza klaseetara joaten naiz".

Horren harira, erronkak argi ditu Lubanzadiok: "Laster kalean egongo da Lola Indigoren disko berria eta birarekin jarraituko dugu. Momentuz, Estatu Espainiarrean egin ditugukontzertuak, baina gure ametsa da Hego Amerikara jauzi egitea. Hala ere, zaila da eta, zorte ona badugu, hurrengo urtean egingo dugu".

Euskal Herrira begira, dantzariak aitortu du beste amets txiki bat duela: "Bilboko Aste Nagusian kontzertua eskaintzea".

Azken urtean izan duen ibil-

bideari buruz galdetuta, laudioarrak ezin du oraindik baloratu: "Lan handia egiten dut ahal dudan guztia ikasteko. Lola Indigo da nire lehen taldea eta ulertzen ari naiz zer den oholtza handian dantzatzeko. Esperientzia eskuratu nahi dut honekin eta oraindik ez dut prozesatu zer den taldean egotea".

Gauzak horrela, ospaaren ondorioak ez ditu guztiz barnerratu: "Buru-belarri nago lanean sartuta. Konturatzen naiz jende askok jarraitzen nauela, *Fama, a bailar* saioan atera nintzenetik baino gehiago, baina ez daukat denbora horri buruz pentsatzeko, aprobetxatu behar dut

ikasteko ditudan aukerak. Lola Indigo bukatzen denean ulertuko dut, ziurrenik. Hori bai, arraroa iruditzen zait jendeak nire izena oihukatzea kontzertuetan edo bere sakelakoan nire irudia izatea".

Gaztea Dantzan epaile

Hala eta guztiz ere, agerpen gehiago izan ditu Saydi Lubanzadiok: "Manuel Carrascorekin egin nuen bideoa, adibidez, eta ez dut ahaztu nahi *Gaztea Dantzan* lehiaketako epaile izan nintzela. Duela gutxi parte hartu nuen dantzatzeko saio horretan eta horrek ilusio handia egin zidan".

***Enero* izeneko diskoa kaleratu dute Andrea Ulloak eta Igor Arzuagak elkarlanean**



Hainbat kontzertu eman dituzte elkarrekin Ulloak eta Arzuagak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Andrea Ulloa eta Igor Arzuagak lehen diskoa argitaratu dute elkarrekin: *Enero*. "Lan eta denbora askoren emaitza da diskoa", adierazi du Andrea Ulloak, "eskerrik asko zuen pazientzia eta arretagatik".

Diskaren azala Leire Orue-
tak egin du, eta Kultura&Na-
tura estudioetan egin dituzte

grabaketak. Igor Arzuaga aretar-
rak ere pozik aurkeztu du egis-
tasmoa sare sozialetan: "Orain
promozioa egitea dagokigu,
lehen edizioko kopia bana es-
kuratzeko zuetako bakoitzak".

Arzuagak nabarmendu du poesia eta melodia gozoak uztartu dituztela lanean: "gozamenada". Abesti bilduma Lau-dioko Zuhaitza liburu-dendan zein Keska tabernan jarri dute salgai.

Amurriocken bigarren edizioa abian



Deus ez taldea gailendu zen iazko edizioan. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Amurriock musika lehiaketaren bigarren edizioa abiatu du Burubio kultur elkarteak Amurrioko Udalaren eta udalerriko Musika Eskolaren laguntzarekin. Ireki dute dagoe-

neko izena emateko epea, eta maiatzaren 17ra arte egongo da zabalik, Burubioke.com web-gunean. Bi kategoria egongo dira: rock-metal eta pop-alternatiboa. Finalaurrekoak maiatzaren 31tik ekainaren 7ra egingo dira eta finala, aldiz, ekainearan 14an.

Laudio Wellnessek 6 sari jaso zituen Orbe dantza lehiaketan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudio Wellness Crew gimnasiotik Burgoseko Orbe Lehiaketan parte hartzeko hiru talde osatu zituzten eta guztiak itzuli ziren sariak lortuta.

Dantzari txikienak Laudio Wellness Kids taldean batu ziren. 14 ume horiek lehen aldiz aritu ziren lehiaketan eta brontzeko saria irabazi zuten, dantza urbanoa egiteagatik.

Bestetik, Laudio Weellness Crew taldean 18 nerabek parte hartu zuten eta zilarrezko



Laudio Wellness taldeko kide guztiek lortu zituzten sariak. **S.A.B**

saria ez ezik, eszenaratze saria ere eman zieten.

Horrekin batera, Laudi'on taldean 15 guraso batu ziren 33 urte baino gehiagoko kategorian. Estreinako aldiz lehia-

tu baziren ere, bi sari eskuratu zituzten. Alde batetik, errebelazio taldearen saria erdie-tsi zuten. Bestetik, Miguel De Dios "errebelazio dantzaria" izendatu zuten.

EZ, WE CAN'T

Ez, ezin gara euskaraz bizi instituzio publikoetan
 No, no podemos, vivir en nuestro idioma en las instituciones públicas
 Non, nous ne pouvons pas vivre en en notre langue dans les institutions publiques
 Não, não podemos viver na nossa língua nas instituições públicas
 No, we cannot live in our language in public institutions
 لا، لا يمكننا العيش في لغتنا في المؤسسات العامة



www.change.org

SINATU!
BAI, WE CAN

ALKATE, ZINEGOTZI ETA
 UDALETXE EUSKALDUNAK
 NAHI DITUGU

**ESKUBIDEAK
 DITUGULAKO**

SINATU HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ALDE:
www.labur.eus/ezwecant

POLITIKARI GUZTIEK EZ DAKITELAKO EUSKARAZ
 UDAL LANGILE GUZTIEK EZ DAKITELAKO EUSKARAZ
 UDALEN KOMUNIKAZIOAK EZ DAUDELAKO BETI EUSKARAZ
 BATZAR ETA HITZALDIK ERDARAZ EGITEN DIRELAKO IA BETI
 EZ DAGOELAKO BALIABIDE NAHIKORIK EUSKARA NORMALIZATZEKO

UDALETAN EUSKARA, LEGEZ!
EUSKARA EN LOS AYUNTAMIENTOS,
PORQUE NOS AMPARA LA LEY

* Apatzen Data 95/1997 deklaria. Eusko leku administratiboen euskarazko erabilera normalizazioa erabateko erabakia da (EUSKO JAURLARITZA).
 * Apatzen Data 95/1997 deklaria. Eusko leku administratiboen euskarazko erabilera normalizazioa erabateko erabakia da (EUSKO JAURLARITZA).
 * Real Decreto 2166/1989, de 28 de noviembre (LEY 1/1985 ADMINISTRACIÓN LOCAL ESPAÑOLA).
 * 12/2019 (EUSK. Apatzen Data 95/1997 deklaria. Eusko leku administratiboen euskarazko erabilera normalizazioa erabateko erabakia da (EUSKO JAURLARITZA).
 * Ley 1/2019 (EUSK. Apatzen Data 95/1997 deklaria. Eusko leku administratiboen euskarazko erabilera normalizazioa erabateko erabakia da (EUSKO JAURLARITZA).

Kirola



JOSE MARI BASUALDO (Luiaondo, 1948) TXIRRINDULARI PROFESIONALA IZAN ZEN KAS TALDEAN ETA ESPAINIAKO TXAPELDUNA ZIKLOKROSEAN. BERE MARKARIK ONENA DIZIPLINA HORRETAKO MUNDUKO TXAPELKETAN ESKURATU ZUEN 1970EAN, 2. POSTUA ESKURATUTA. APIRILEAN OMENALDIA EGINGO DIOTE AMURRION.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Nola hasi zinen txirrindularitzan?

Nik Aiarako eta inguruko ziklokros lasterketa guztietan parte hartzen nuen eta irabazten nituen. Horregatik animatu ninduten federatzera. Urtarrilean egin nuen lizentzia eta hil horretako 14an lehiatu nintzen lehenengo aldiz modu horretan. Emaitzak onak izan ziren eta otsailean Munduko Txapelketan aritu nintzen. Ziztu bizian izan zen.

Lehen txapelketarako nire kabuz prestatu nintzen. Gero federazioak gehiago zaindu ninduen. Niretzat inognita bat zen dena. Lehenengo aldiz atera nintzen etxetik eta Luxenburgora bidali ninduten.

Hurrengo urteetan Munduko Txapelketan hainbat aldiz lehiatu nintzen eta 2., 5., 8., 10. postuetan geratu, besteak beste. Lehenengo aldian probatu nuen, bigarren oso ondo lehiatu, baina erorketa baten ondorioz hamargarrena izan nintzen.

Hirugarren urtean "eztanda" egin nuen. Estatu Espai-

nian 25 lasterketa zeuden eta, oker ez banabil, 20 irabazi nituen eta besteetan bigarren izan nintzen. Munduko Txapelketan 2. postua eskuratu nuen.

Zehazki, Pontevedran izan zen Espainiako Ziklokros Txapelketa. Irabazi nuen igande batean. Egunean bertan hautatu ninduten selekzioan aritzeko eta astelehenean Tolosara joan ginen autobusez. Handik Zolderrera, Belgikara, jo genuen hurrengo egunean. Egun batzuk behar izan genituen heltzeko eta igandean 2. postua erdietsi nuen.

100.000 pezeta irabazi genituen taldekook. Bakoitzak 18.000 eskuratu zituen, mekanikariari ere ordaindu behar baitzitzaion. Podiumera igo eta ia bakarrik nengoen, ez zegoen ezta nire ama ere. Ez hedabiderik, ez ezer, beste garai batzuk ziren.

Zer nolako baliabideak zenituen hastean?

Nire lehenengo lasterketan ez zuten nahi parte hartzea, nire bizikleta oso txarra baitzen. Dena laga zidaten: kamiseta, kulotea... Azkenengoa bukatu nuen, baina pozik. Ziklokroseko entrenatzaileak agindu zidan astean

bitan baino ez hartzea bizikleta, eta horrela egin nuen. Hurrengo lasterketan ikusi nuen funtzionatzen nuela eta 7. postuan sailkatu nintzen. Hirugarrenean ondo egiten ari nintzen, baina bi aldiz zulatu zitzaidan gurpila eta lasterketa utzi nuen.

Hurrengo probarako txirrindula erosi zidaten herrian. Karpy taldeak izugarri lagundu zuen eta horrekin hobera egin nuen.

Berehala ikusi nuen profesionala izateko aukerak nituela. Urtarrilean hasi nintzen eta lasterketak irabazi nituen handik gutxira. Kontuan hartu ninduten.

Abenduan Antzuolara joan nintzen lasterketan parte hartzera eta Anton Barrutiak proposatu zidan KASeko kidea izatea. Berehala sinatu genuen, eman zidan uniforme eta lasterketan parte hartu nuen.

Ez zegoen kontzentrazioerik ez ezer. Hurrengo neguan hasi nintzen KASekin lasterketetara joaten.

Denbora askoz lehiatu zinen?

1968ko urritik 1970eko maiatzera arte bizikletaren gainean egon nintzen etengabe, ziklokrosean zein erre-



“Ni ez naiz Aiarako txapeldun bakarra”

“Nire 3. urtean ‘eztanda’ egin nuen. Estatu espainiarrean 25 lasterketa zeuden eta 20 irabazi nituen”

pidean. Une horiek izan ziren onenak. Gero zerbitzu militarra egitera joan nintzen eta etenaldia izan nuen.

Munduko Txapelketan 2. izan nintzenean domina oparitu nion Espainiako Kirol Ordezkaritari zerbitzu militarra egitetik salbatzen ninduen ikusteko, baina ez zuen ezer egin. Sekulako ustekabea izan zen. KAS taldekoek 3 hilabeteko baimena lortu zidaten: abendua, urtarrila eta otsaila.

Nik KAS taldearekin ez nituen lasterketa handienak egiten, baina bai Euskal Herriko edo Kantabriako birak. Giro-ra joateko zorian egon nintzen 1970ean, baina federazioak lizentzia blokeatu zidan, Munduko Ziklokros Txapelketan parte hartzeko hurrengo urtean. Soldatarik eta ezer ez gabe utzi ninduten, gainera. Nire ibilbidea izorratu zuten. Agian gero Giroan ez nukeen ezer egingo, baina aukera izango nuke, behintzat.

Zerbitzu militarren ondoren ez zenuen sasoia berreskuratu?

1969an hasi zen nire gainbehera. Erorketa izan nuen Gipuzkoan, Aizpurutxun. Felix Gonzalezek, Zuberok eta beste baten batek ihesaldia egin genuen eta bihur-

gune batean erori nintzen, abiadura bizian. Istripu ugari egon dira hor.

Hasieran uste zuten hilda nengoela, harri baten aurka jo nuen. Une horretan ez zen ezer gertatu, baina apurka-apurka gainbehera fisikoa izan nuen. Azkenean sendagile batek esan zidan txirrindularitza utzi behar nuela, lepaornoak txikitu nituen eta. Medikuek hori jakinarazi bezain laster, uko egin nion kirola praktikatzeari. Nik sumatzen nuen jadanik erren nengoela.

6 urtez bakarrik aritu nintzen bizikletan, medikuek 4 ebakuntza egin zizkidaten eta ez zuten ezer lortu, eta gainera nire patrikatik ordaindu nituen. Orain larrutik ordaintzen ari naiz istripua, baina aintzat hartuta hiltzeko zorian egon nintzela, modu positiboan pentsatu behar dut eta zorionekoa izan nintzela uste dut.

Kirola utzi ostean, aurrera egin behar izan nuen. Denda ireki nuen neskalagunarekin -orain emaztea dena- eta gero Tubacexen egin nuen lan.

“Girora joateko zorian egon nintzen, baina federazioak lizentzia blokeatu zidan. Nire ibilbidea izorratu zuten”

Gero jarraitu zenuen txirrindularitzan?

Alde batetik, oso lanpetuta egon nintzen dendan eta lantegian. Bestetik, apur bat iparra galduta eta desanimaturik bukatu nuen. Behar nuen babesa ez nuen lortu. Bestelako jarraipen medikurik eduki izan banu, ziurrenik bizikleta aurretik utziko nukeen.

1969aren ostean etorri zen gainbehera. 1970an hegan egiten nuen, nahiz eta guztiz ondo ez egon. Horrez gain, basakeriak egin zizkidaten, filtrazioak, ebakuntzak... Proba bankua izan nintzen eta orain nabaritzen dut.

Gaur egun, denbora asko igaro arren, zaletu askok gogoratzen zaituztete eta omenaldia egingo dizute apirilean.

Bai, gazteek ez ezagutzea normala da, ia 50 urte igaro dira utzi nuenetik, baina oraindik harro sentitzen naiz.

Hori bai, nik omenaldiekin ez dut zerikusirik. Nik proposatu nuen bazkaria egitea, baina txirrindulari ohiekin, Aiara asko baitaude, eta begira zer prestatu didaten. Ederra egin didate. Espero dut dena ondo ateratzea. Tontakeria dirudi, baina ni urduri nago, ea nola jasaten dudan. Nire ustez, bazkaria urtero egin beharra dago, Aiara txirrindularien eremua baita. Ni ez naiz txapeldun bakarra. Hor daude Alvaro Fernandez, Izaskun Bengoa edota Luisa Ibarrola, Amurriotik atera gabe. Badaude ere Solaun, Unzaga, Isasi anaiak...

Kirola

TRAILA

Hiru zirkuitu izango ditu Amurrio Trail probak



Amurrio Trail taldeak aurkeztu du dagoeneko aurtengo proba, 8. edizioa izango dena. Uztailaren 21ean jokatu da Amurrio barrera, eta hiru ibilbide osatu dituzte: 12 kilometroko lasterketa, 20 kilometroko eta 30 kilometroko.

Izena emateko aukera zabalik dago jada, Rock the sport webgunean. Gainera, ekainaren 30a baino lehen apuntatzen direnek merkeago eskuratuko dute dortsala, 18 euroan, 22 euroren ordez.

Wikiloc programaren bidez zabaldu dituzte hiru probetako zirkuitu zehatzak.

TAEKWONDO

Domina ugari lortu dituzte Gaztela eta Leonen



Gaztela-Leoiko Taekwondo Txapelketan lehiatu dira Lau-dioko Taekwondo Klubeko kideak. Banakako lehiak Aina-re Vega Larreategik eta Olga Gutierrez Garridok urrezko domina eskuratu zuten. Binakako modalitatean, June Ibarrola Diaz eta Yera Alonso Ruizek haurren mailako urrezko domina etxeratu zuten, baita Iker Pelaz eta Ainara Vivancok ere. Bestalde, Siratsek urrezko domina irabazi zuen banakako modalitatean. Eskualdeko beste kirolari batzuek ere eskuratu zituzten zilarrezko eta brontzezko dominak.

ESKALADA

Ibai Isusi bigarren Bizkaiko Boulder Txapelketan

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Iragan apirilaren 6an egin zen Bizkaiko Boulder Txapelketa Bilboko Piu Gaz rokodromoan. Ibai Isusi orozkoarrak bigarren postua erdietsi zuen norgehiagokan, Martin Urrutia elorrioarraren aurretik eta Andoni Esparta bilbotarraren atzetik. Alex Duran laudioarrak ere lortu zuen finalera pasatzea. "Lau-dioko, Orozkoko eta Aretako jendea egon zen lehiatzen", azaldu du Isusik, "127 parte hartzaile egon ziren guztira".



Ibai Isusi orozkoarra lehiaketaren une batean. Ekaitz Anda



MAIDER LOPEZ ECHABE

KAZETARIA

Zenbakiak bakarrik hitz egiten dute

Martxoaren 31, emakumezkoen futbolarentzat egutegian kolorez markatzeko beste egun garrantzitsua da. Anfitrioiak: San Mamés. Partiduko irabazlea Athletic baino, talde zuri-gorriak Bizkaia osoan banatuta dituen hitzartutako klubak izan ziren. 32 neska futbol talde, alajaina. Horien artean, Aiaraldeko CD Orduña taldea. Partiduko diru-bilketa guztia talde hauei banatuko zaie.

Ligako 26. jardunaldia giro ederrean igaro zen. 24.986 zale egon ziren harmailetan partidua gozatzen, mutilen lehenengo mailako zazpi futbol-zelaietan baino ikusle gehiago izaten. Egun horretan, 67 kilometrotara, beste partidua inportante bat jokatu zen. Alavés Athletic "B" taldearekin neurtu zen Mendizorroztan. Bigarren mailako partidua 8.375 ikusle izan zituen, maila horretan lortutako zenbakirik onena.

Gainera, neskak zela horretan jokatzeko estreinatu ziren. Emakumezkoen futbolak azken hilabeteetan pausu erraldoiak eman ditu. Urtarrilaren 30ean, Kopako final laurdenetan, Athletic Athletic de Madrid taldearekin neurtu zen San Mamesen eta 48.121 zale bildu ziren. Errekorreko zenbakiak. Ligako 20. eta 24. jardunaldietan neskek Anoeta eta Wanda Metropolitano zelaietan jokatu zuten. Donostian 21.234 zale bildu ziren eta Madrilen 60.739, lortu den zenbakirik onena. Zenbakiak bakarrik hitz egiten dute. Eztabaidak jarraitzen duen bitartean emakumezkoen futbolak oztipoak gainditzeko jarraitzen du.

AIARALDEKO MEMORIA HISTORIKO FEMINISTA ERAIKIZ

APIRILAK 27 · 18:00 ·
AIARAKO EMAKUMEEN GELAN

AIARALDEA EKINTZEN
FAK
TO-
RIA

Herriko plaza



Mikel
Zorionak Morma! Txurrimuski askorekin ospatuko dugu.
Lagunak



Mikeldi
Zorionak Mikeldi! 19 urte dagoeneko!
Lagunak



Aimar
Zorionak txapeldun!! 8 urte!! Muxu handi bat zure familiaren partez!
Familia



Leire
Zorionak saltseraaa! Zaila izango bada ere, harrapatuko zaitugu ospatzeko!
Lagunak



BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Maiatzaren 2an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

Argazkilaria audioarra

ERRAZA

		8	4	7		5	3
6				3		7	
5			1	6	4		
		3	8	6	7	5	
8	9	6	5	2		7	4
		5		4		8	6
2							
			2			9	6
					5	2	

		7		6		8	
8		2	4			7	5
						6	
4			6			7	
		6			2		5
	9	5			7		4
5		9	8				6
3		1		5	6	4	7
6	7	8					9

ZAILA

	3		8	4		7	6	2
7	2	9						
	4				7	5		
	7				8			
9		3						7
6					5			4
		2		6				
4		7	5	3			8	
5							4	3

		2				7	3	
				9	7	2		
			4					6
3	9			1				
				7				
8			6			1		
			9		3			8
		4				3		5
					1		2	

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatuz eta hitz gezidunaren soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



Lan-eskaintzak

- Pilates irakaslea AUDIO
- Elektromekanikaria AUDIO
- Ingeles irakaslea AUDIO
- Biltegi langilea AUDIO
- Biltegiko taldeen koordinatzailea AUDIO
- Industriako instalazio elektrikoko adituak AUDIO
- Garbitzailea AUDIO
- Jantokiko langilea AUDIO
- Sukaldaria AUDIO
- Lanpara saltzailea AUDIO
- Eraikuntzarako makineriarako mekanikaria AUDIO

LAN-ESKAINZA GEHIAGO AIARALDEA.EUS ATARIAN

Guardiako farmaziak

- Apirilak 16 SOLAUN eta HERNANDEZ
- Apirilak 17 EGUIA eta PEREDA
- Apirilak 18 MENOYO eta CACERES
- Apirilak 19 MENOYO eta CACERES
- Apirilak 20 MENOYO eta CACERES
- Apirilak 21 MENOYO eta CACERES
- Apirilak 22 MENOYO eta CACERES
- Apirilak 23 C. FUERTES eta IBARROLA (errefortsua YARZA)
- Apirilak 24 EGUIA eta PEREZ
- Apirilak 25 RIVERA eta HERNANDEZ
- Apirilak 26 SOLAUN eta PEREDA
- Apirilak 27 A. FUERTES (errefortsua SOLAUN) eta PEREDA
- Apirilak 28 A. FUERTES eta PEREDA
- Apirilak 29 AIS eta IBARROLA (errefortsua PEREZ)
- Apirilak 30 RIVERA eta YARZA
- Maiatzak 1 C. FUERTES eta FERNANDEZ (errefortsua HERNANDEZ)

Zozketa

Alaves-Valladolid futbol partida



4 sarrera bikoitz

Norgehiagoka Mendizorrotzako zelaian apirilaren 21ean izango da, 12:00etan.
Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus en
Zozketa data: apirilak 19, 12:00etan.

Aiaraldea txiki

Hau da Festa!

Ui, ui, ui, hori da kuxidadea! Pelloziri urtebetetze-festa ospatzen ari da etxean, baina gonbidatuak ez dabilta oso txukun... Anabasa horretan zazpi ordulari aurkitu behar dituzu. Eta hori egin ondoren, margotu ezazu irudia zure gustura, batere kolorerik ez du-eta.

Sudokua



Osa ezazu sudokua, URTEAK hitza osatzen duten hizkiak (U, R, T, E, A eta K) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.




Zortzikoa

Aurki itzazu bi irudien artean dauden zortzi aldeak.



Marratz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.

Emaizak





Kontra

Mundutik Aiaraldera

Simon Matzinger

Joana Muñoz Castillo

JAIOTERRIA
EKUADOR

BIZILEKUA
AMURRIO

BIDAIAREN XEDEA
LANA ETA FAMILIA



“Etxeko langile gisa nituen eskubideez jabetzen lagundu dit feminismoak”

Euskaraz duela gutxi hasi zinen ikasten, zergatik?

Hamazortzi urterekin etorri nintzen eta lanera etorri nintzen. Etxeko langile hasi nintzen, egun emakume etorkinak gara eremu horretan gehiengo. Hortik gutxika-gutxika, interes asko nituen eta haurrak zaintzen hasi nintzen, konturatu nintzen gustoko nuela. Goi mailako gradu bat egin nahi izan nuen, baina horretarako ikasketak baliozkotu behar nituen.

Komentatu zidaten zailtasunak izango nituela euskara gabe haur hezkuntzan lan egiteko, hemen euskara gabe ezin baita haur eskola batean lan egitea. Momentu horretan behartutako zerbaite iruditzen zitzaidan, gainera nire inguruan, Bilbon mugitzen nintzen esparruetan, inork ez zidan euskaraz hitz egiten, hortaz, ez nuen beharrezkoa ikusten. Ez nuen mo-

tibazio hori sentitzen. Harik eta Amin Maalouf-en *Identidades asesinas* liburua irakurri nuen arte, egileak hizkuntza gutxituez hitz egiten du. Orduan gure hizkuntzarekin konektatzen hasi nintzen, amari galdetu nion: ama, zuk zergatik ez duzu kitxua hitz egiten? Ekuadorren toki askotatik ibilia naiz, kitxua hitz egiten da, baina oso toki gutxitan, eskualde zehatzetako tokiko pertsonen soilik egiten dute. Pena ematen dit, baina orain esan dezaket euskarra gehiago dakidala kitxua baino.

2002an etorri zinen, zergatik?

Ekuadorren 1999tik 2006ra gora behera asko egon ziren, krisi politiko eta ekonomiko bat izan zen, ezegonkortasun handia. Aita etorri zen lehena, Madrilera bertan lagun bat baitzeukan. Ni ikasketak egiten ari nintzen, karrerako lehen urtea, baina berak ezin

zuen ordaintzen jarraitu. Bera- rentzat ez omen zegoen lanik, baina emakumeentzat ba omen zegoen lana, eta etortzeko esan zidan. Bilbon lanean eta ikasten hasi ginen eta ondoren Amurri- ra etorri nintzen, duela bost urte.

Greba feministaren arira zain- tzaileen lana erdigunean jarri da. Nolakoa da lan hori?

Ez dakit nola hasi ere... Ni etxeko langile hasi nintzen, jardunal- di oso luzeak nituen, amaigabeak, etxe barneko langile nintzen. Familiarekin duzun zortearen araba- rakoa da, ez dago legearen araba- neurtua, ez daukazu kontratu zehatz bat salatu dezakezu- na. Erroldarekin gertatzen dena, adibidez, oso larria da, errolda eskubide bat da baina baita bete- behar bat. Enplegatzaileak erroldan altan eman behar zaitu, be- raien betebeharra da. Askok, or-

dea, ez dute egiten eta egiten badi- zute zure soldatatik kentzen dizute. Ezinbestekoa da, erroldatua ez bazaude ez duzulako eskubiderik, ez laguntzak eskatzeko ez ezerta- rako, ez zara existitzen.

Gatazka bat dago, maitasuna diezu zaintzen dituzun pertso- nei, txantaia bat bezalakoa da: "umeak zutaz galdetu du etorri mesedez"... Niri asko kostatu zit- zaidan familia hori uztea, zain- tzen nituenak asko maite nitue- lako. Mugak jartzen ikasi behar da, horretan lagundu dit mugi- mendu feministak, gure artean kontzientzia sortzen, gure esku- bideak non dauden zehazten, zeintzuk diren genero manda- tuak, zergatik onartu dut hori guztia, zergatik egin dut hori, kulpak kentzen ere ikasi behar da. Gure artean babestu behar gara eta zaintzen gaia nola erai- ki behar dugun hausnartu.

EKUADOR



DESKRIBAPENA

Hego Amerikako populazio dentsitate handiena duen herrialdea da Ekuador, eta munduko bioaniztasun handienetako bat du. Mundu osoko petroleo exportatzaile handienetako bat ere bada.

AZALERA

283.561 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

17,18 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Espainiera da hizkuntza ofiziala, baina beste hizkuntza batzuek ere badute izaera ofiziala: quechua, shuarra, wao tereroa, tsáfiquia...

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publicitate@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behe. Audio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Xabier Ugalde Gullas, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martinez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguiluz, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gullas, Eunete Molinuevo Olabarria eta Koldo Rodriguez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

